

90. urteurrena, Donostia, 2009-10-9

Blanca Urgell

Eskerrik asko. Egun on jaun-andreok. Egun on Euskaltzainburu jauna, agintariok, euskaltzainok.

Nik ez dakit erabakia hartu duzuen ea Euskaltzaindia aitona ala amona den, baina bistan da adin batekoa egin zaigula ia oharkabeen. Egia da nik joera izango nuela historian atzera egiteko –askok dakizuen bezala–, baina gure ostalariak, Gipuzkoako Diputatu Nagusiak berba jasa eder bat eman digu, historia ikastaro txiki bat egin digu, oso ondo kontatua eta, beraz, nire joera horri eutsi egingo diot.

Hortaz, bakarrik gogoratuko dut, oso garrantzizkoa baita, ordezkatzan dudan erakundetik eta hemen mahaian gauden guztion aldetik ere, nik uste, Etxepare batek, edo Axular batek, edo Larramendi batek, edo Lizardi batek, beraz, euskara nolanhiko bihurtu nahi izan duten horiek guztiek, zer-nolako begi zabalak ipiniko lituzketen, zer-nolako harridura izango luketen euskara orain dagoen egoeran ikusirik.

Bide luzea izan da oro har, eta bide luze horren azken 90 urte hauetan Euskaltzaindiak zer esan handia eta zer egin handia izan du, dudarik gabe, eta alde honetatik eskertzekoa da erabat joan direnen eta hemen zaudeten guztion lana.

Egitekoa ez da amaitu: entzun ditugu hainbat gauza alde horretatik hemen. Egitekoa erraldoia da eta, gainera, uste dut denok dakigula gure hizkuntza txikia den bezain erraldoia dela egitekoa. Etorkizuneko egiteko garrantzizkoena, nire ustez, egokitzea da, hain zuzen ere. Inoiz *Garoa*-ko Euskal Herria hura izan bada nagusi, bistan da aspaldi joan zitzaigula, eta momentu honetan egokitzapenak, eten gabeko egokitzapenak, eten gabeko aldaketak gertatzen ari direla. Eta horretarako, euskarak aurrera egin nahi badu, eta nahi du, denok dakigu hala dela, ba egokitzapena du lehenengo egitekoa. Eta dantza honetan Euskaltzaindiak, hainbatetan bezala, aurrena izan behar du. Hala espero dugu erakunde guztiok, nik uste. Eta Brisson jaunak esandakoari nolabait jarraipena emanaz, uste dut hemen gauden instituzio guztiek elkarlanerako borondate sendoa dugula. eta argi dagoela batzen gaituena euskara dela, izan ditzakegun unean uneko ezberdintasunak baino askozaz ere inportanteagoa baita. Euskaltzaindiari zorionak ematea eta urte asko opatzea besterik ez zait gelditzen. Eskerrik asko.